

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Legazpiko Agenda 21eko Foroa 2011ko maiatzaren 19an egindako tailerraren akta

Tailerraren laburpena, 2 lerrotan:

- *Eguna, ordua, tokia:* 2011ko maiatzaren 19an, 18:30etik 20:00etara, Legazpiko udaletxean.
- *Parte-hartzaile kopurua:* 14 pertsona.
- *Aztertu den gaia:* Zer nolako energia-hobekuntzak ezar ditzakegu udal eraikinetan eta Legazpiko kale argiterian? Energiaren Euskal Erakundeak (EVE) Legazpin egin duen udal energiaren azterketaren emaitzak.



Zer nolako energia-hobekuntzak ezar ditzakegu udal eraikinetan eta Legazpiko kale argiterian?

Gaur, maiatzaren 19an, Legazpiko Agenda 21eko Foroaren hileko tailer hau galdera horri erantzuten saiatu gara. Eta horretarako gure artean izan dugu Energiaren Euskal Erakundeak (EVE) Eraginkortasun departamentuko teknikaria den Sergio Lopez. Berak, oraintsu egin den Legazpiko udal energiaren azterketak eman dituen emaitzak azaldu dizkigu modu errazean eta pedagogikoan.

Jarraian, ikus dezagun saioak eman duena eta zeintzuk izan diren Sergiok transmititu dizkigun ideia nagusiak.

Tailerrean parte hartu dutenak

Guztira, 14 pertsona izan gara. Izen eta abizenekin, gure esker beroena saio honi zentzua eta indarra eman diozuenei:

Eugenio Gil • Montse Vallejo • Jose Miguel Arratibel • Pedro Barroso (Nagusilan) • M^a Jose Cantero (Nagusilan) • Junkal Fernández • Joxan Auzmendi (Ingurugela Legazpi) • Rafael Gomez (Buskabaso) • Javier Iraeta • Sotero Plazaola (Legazpiko alkatea) • Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) • Sergio Lopez (EVE) • Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

Ezin dutela etorri adierazi dute: Manuel Fernandez (Nagusilan), Vicente Garmendia eta Jon Erramun Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia).



Eta era berean, hausnartzeko gaia jarri dugu mahai gainean: gaur, besteetan baino lagun gutxiago elkartu gara eta hainbat aurpegi ezagun bota ditugu faltan. Zergatik? Gaia izango da? Edo eguna agian?

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Zehatzago aztertzen saiatuko gara. Eta hausnarketa honetan zure laguntza jasotzen badugu, ondo baino hobeto!

Legazpiko udal energiaren azterketa. Zeintzuk dira ondorio nagusiak?

Jarraian, Sergio Lopez teknikariak eskaini dizkigun ideia nagusiak azpimarratuko ditugu, galdera-erantzun gisa. Horiek guztiak zehatzago ageri dira Legazpiko Udalak bere esku duen dokumentuan.

Azterketak, zer aztertzen du eta zein helbururekin?

Energiaren Euskal Erakundeak Legazpin egin duen energiaren azterketak ondoren zehazten diren lekuetako energia-kontsumoak eta ezaugarriak aztertu ditu:

- Udal eraikinetakoak -25 eraikin guztira-: udaletxea, haurtzaindegia, kiroldegia,...
- Herriko argiteriaren koadroak -34 koadro guztira-.

Helburu zehatz batekin: Ondoko helburuak lortzea ahalbidetuko duten neurriak proposatzea:

- Udalerriaren energia-kontsumoa murriztea.
- Herri mailan energia berriztagarriak sustatzea.

Gaur egun, Legazpiko udal eraikinetan eta kale argiterian zenbat kontsumitzen da eta ze kostu du horrek?

Kopuruak esanguratsuak dira:

Kontsumoa...	Urteko kontsumoa (kWh)	Energia-kostua (euro/urteko)
Elektrizitatea (eraikinetan nahiz kale argiak)	1.794.453	253.511,28
Erregaiak (C gasolio, propanoa, gas naturala eta pellets)	2.451.979	118.769,87
Guztira		372.281,15 euro.

- Guztira kontsumitutako elektrizitatetik, % 57,82 udal eraikinetan kontsumitutakoa da; eta % 42,18 herri argietan.
- Erregaietatik, gas naturala da gehien kontsumitzen dena; gaur egun, hori da merkeena.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Abiapuntuko datu horien gainean, zer neurri har daitezke kontsumoa eta energia-kostua murrizteko?

Bi bide har ditzakegu:

1. **Instalazioak hobetzea**, bai eraikinetan bai kale argiterian; kasu honetan, energia eraginkorrenen alde egin behar da.
2. **Gure energia-kontsumoaren azturak hobetzea**, erabiltzaile garen aldetik.

Udalaren energia-azterketak lehenengo bidetik jotzen du eta ondoko proposamenak egiten dizkio Legazpiko Udalari.

Nola hobetu energia-eraginkortasuna eta nola murriztu kontsumoa eta energia-kostua?			
	Jarduera eremuak	Legazpin har daitezkeen neurriak	Jotako energia-aurrezkiak
Udal eraikinetan	Barruko argiak	<ul style="list-style-type: none"> Goritasun-lanparen ordezkari lanpara fluoreszente trinkoak jarri. OHARRA: gainera, Europako araudi batek laster goritasun-lanparak ekoiztea debekatuko du.	% 80
		<ul style="list-style-type: none"> Lanpara fluoreszenteetan balastro elektromagnetikoen ordezkari balastro elektrikoak jarri. 	% 20
	Berotzeko sistemak	<ul style="list-style-type: none"> Zelula fotosentikorak jarri, argi naturalaren arabera argiak erregulatzeko. 	Aldakorra
		<ul style="list-style-type: none"> Galdara ez-eraginkorak kendu eta galdara eraginkoragoak jarri. OHARRA: taldeak erregai hoberena zein den galdetu du eta hauxe izan da Sergioren erantzuna: harreman tekniko/ekonomiko hoberena bilatu behar da beti eta konponbide hori aldatu egingo da instalazioaren ezaugarrien arabera. Gaur egun gas naturala da energia ekonomikoena baina beti ez dago hori erabiltzeko aukera. Biomasa iraunkoragoa da, baina leku handia behar da erregaia biltegitratzeko. Taldearen galdera: Eta geotermia? Erantzuna: geotermiak azterketa sakona eskatzen du eta inbertsio handia.	Aldakorra
		<ul style="list-style-type: none"> Erradiadoreetan balbula termoestatikoak jarri. 	Aldakorra
Inguratzaile termikoa	<ul style="list-style-type: none"> Leihoak aldatu, arotzeria eraginkorra eta kristal bikoitza hautatuz. 	Aldakorra	

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Nola hobetu energia-eraginkortasuna eta nola murriztu kontsumoa eta energia-kostua?			
	Jarduera eremuak	Legazpin har daitezkeen neurriak	Jotako energia-aurrezkiak
Kale argiterian	Lanparak eta argiak	<ul style="list-style-type: none"> Merkurio-lurrunezko lanparen ordeztze goi-presioko sodio-lurrunezko lanparak jarri. 	% 30
	Kontrol sistemak	<ul style="list-style-type: none"> Argien errendimendua hobetzea (islatzaileak jarri, adibidez). 	% 30
	Kontrol ekipoa	<ul style="list-style-type: none"> Erloju astronomikoa jarri. OHARRA: Legazpiko udaletxean energia-gaiak daramatzan teknikariak, kasu honetan, honako proposamena egin du: zelula fotoelektrikoak erloju astronomikoarekin konbinatu. 	% 5
		<ul style="list-style-type: none"> Gaueko ordu batzuetatik aurrera argi-maila gutxitzen duten fluxuak murrizteko sistemak ezarri. 	Aldakorra

Gainera, hona hemen bestelako datu esanguratsuak:

- Joan den 2009ko apirilaren 1ean, indarrean sartu zen kale argiterian energia-eraginkortasunaren gaineko Araudi berria. Araudi horretan gaueko argiztapen-maila mugatzen da, segurtasun-irizpideak eta instalazio berrien eta daudenetan aldaketak egiteko irizpideak bermatuz.



Neurri horiek hartzeak, kontsumoetan eta energia-kostuetan zenbateko aurrezkiak ekar dezake? Eta zein izango litzateke neurri horiek hartzeko egin beharreko inbertsioa?

	Urteko energia-aurrezkiak	Urteko diru-aurrezkiak	Beharrezko inbertsioa
Udal eraikinak	<ul style="list-style-type: none"> Elektrizitatea: 82.593 kWh (egungo kontsumoaren % 8, gutxi gorabehera) 	11.729,15 €	53.028,59 €
	<ul style="list-style-type: none"> Erregaiak: 561.767 kWh (egungo kontsumoaren % 22, gutxi gorabehera) 	36.808,85 €	284.005,50 €
Kale argiteria	Aurrezkiak aldatu egin daitezke aukeratutako teknologiaren arabera: <ul style="list-style-type: none"> 1. aukera. Deskarga-lanparak: 268.426 kWh (egungo kontsumoaren % 35, gutxi gorabehera) 2. aukera. LED lanparak: 436.233 kWh (egungo kontsumoaren % 42, gutxi gorabehera) 	29.168,80 € (Lámparas de descarga)	124.582,83 € (Lámparas de descarga)
		51.351,78 € (Lámparas LED)	1.449.140,72 € (Lámparas LED)


Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Emandako kopuruetatik, ondorio argia ateratzen dugu:

- Energiaren Euskal Erakundeak proposatutako neurriak praktikan jarritz gero, aurrezki horiek (kontsumoan nahiz dirutan) oso garrantzitsuak izango lirateke. Dena den, egin beharreko inbertsioak ere garrantzitsuak dira. Beraz, **neurri horiek nola hartuko diren programatzean dago erronka eta konpromiso politikoa baldin badago, poliki-poliki egin daiteke aurrera.**

Energia berriztagarriak sustatzeari dagokionez, zeintzuk dira aukera bideragarriak Legazpin?

Legazpin har daitezkeen neurriak	
Eguzki-energia fotovoltaikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Hainbat eraikinetako teilatuetan eguzki-panelak jarri: Meazti etxean, San Martin ikastetxean, Kultur Etxean eta Musika Eskolan. 
Haize energia	<ul style="list-style-type: none"> • Oraingoz, eta simulagailu batekin egindako haize-azterketen arabera, Energiaren Euskal Erakundeak ez du bideragarria ikusten Legazpin haize-errotak jartzea (txikiak ere ez). • Leku zehatzetan (taldeak Haizeleku aipatu du) horiek jartzeko aukera aztertu nahi bada, beharrezkoa izango litzateke haizeak neurtzeko dorrea jartzea eta emaitzak aztertzea.

Eta bukatzeko 3 ohar

- **“Elikadura iraunkorra”** izango da herriko ikasleek datorren ikasturtean Eskola Agenda 21 programaren barruan aztertuko duten gaia.

Benetan interesgarria iruditzen zaigun gaia! Eta, seguru, saio hauetan ere jokia emango duela.

Horrez gain, Joxan Auzmendik beste proposamen hau egin du: ikastetxeetan, eskola-orduetan, iraunkortasunarekin lotutako gai desberdinei buruzko hitzaldiak antolatzea (eta horietako bat izan daiteke elikadurarena). Aurtengo ikasturteko Eskola Agenda 21 programaren ebaluazioan jaso den eskaria izan da hori.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- **2011ko Aste Berdearen egitaraua:** ekainaren 5ean, Ingurumenaren Munduko egunerako antolatu diren ekintzak.

Aurten honako proposamenak nabarmendu dira:

- **Merkataritza berdea Legazpin:** Legazpiko denda berdeek ingurumenean eragin txikia duten produktuak sustatuko dituzte eta produktu ekologikoen sortak zozketatuko dituzte.
- **Hitzaldia:** "Legazpiko naturaren aberastasuna". Ekainaren 6an, arratsaldeko 16:00etan, Iratzarri etxeakoandreen elkartean. Hizlaria: Joana, Aranzadi elkarteko teknikaria.
- **"Fokatu Urola Garaia" VIII. argazki-lehiaketa.** Aurten aukeratu den gaia: "mugikortasun iraunkorra". Argazkiak aurkezteko azkeneko eguna: maiatzaren 31. Parte hartu nahi dutenek, ondoko helbidean ditu lehiaketaren oinarriak: <http://www.legazpiko-udala.info/web/images/agenda21/FokatuUG2011Eu.pdf>. Sari-banaketa ekainaren 6an izango da.
- **Legazpiko Iraunkortasun-adierazleen** berri ematea. Adierazleen bilakaera erakutsiko da, udalerrak iraunkortasunaren alde egin duen apustuan aurrera egiten ari garen jakiteko.

- **Ibaialde:** Ekainean irteera egingo dugu ibaiaren tarte bat aztertzeko.

Azkeneko urteotan, Agenda 21eko Foroko hainbat kidek ibaiaren tarte baten egoera aztertzeko irteerak antolatu dituzte ekainean.

Aurten ekimen honekin jarraitu nahi dugun galdera egin ondoren, Agenda 21eko bulegotik deialdi irekia egingo dela erabaki da. Eta taldetxo bat elkartzen bagara, hala egingo dugu!

Eta eskerrik asko korporazioko kide guztiei!

Arratsaldeko 8:00etako kanpaiak jotzen ari direla eta energia aurrezteari buruz asko ikasi eta gero, bukatutzat eman dugu gaurko saioa.

Eta bukatu baino lehen **eskerrik asko esan nahi diogu korporazioari**, 4 urte hauetan Agenda 21eko Foro honekin hartu duen konpromisoa bete duelako eta herrian iraunkortasuna lortzeko politika egin duelako. Guztioi, eskerrik asko!!

Ekainaren 16ko hurrengo saiora arte, izan ongi!

Eskerrik asko guztioi!